

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Frantziska Erostarbe Aginagalde

*Oñati,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Araozgo Etxetxo baserrian jaioa. 3 mutil eta 4 neska ziren, eta bera azkenurrekoa. Aratzurte Beittikora ezkondu zen. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, auzoko beste hiru emakumerekin batera: [Bittori Goitia](#), [Enkarna Grisaleña](#) eta [Xeferi Erostarbe](#) (lehengusiña). Bittori Oñatira bizitzera joan zen aspaldi, eta harekin hika egiteko ohitura galdu egin zuten.

Zintak

ONA-257

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-14
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Mutilak iluntze aldera hasten ziren dantzan

- **Erref:** ONA-257/038
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:01:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Neskak elkarrekin irteten ziren dantzara eta mutilak izkinatik begira. Iluntze aldera hasten ei ziren dantzan mutilak. Teofilotxo soinu-jotzailea. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik; neskak debalde.

2. Iluntzean, gustuko mutilak etxera laguntzeko zain

- **Erref:** ONA-257/040
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:02:13. **Bukatu:** 01:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dantzan egiteko mutilek neskei "faborez" eskatzearena Araozko kontua omen zen. Neskak iluntzean zain egoten ziren, ea gustuko mutila etorriko ote zen etxera laguntzeko. Gustuko mutilaren arreta erakartzeko egiten zituztenak.

3. Hika egiteko ohitura; hikaren etorkizuna

- **Erref:** ONA-257/046
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:10:33. **Bukatu:** 01:11:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Norbaitekin hika edo zuka hitz egiteko ohitura aldatzea zaila da. Gaztetxoek hika ikasiko ote duten komentatzen. Hika ia galduta egon dela diote.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com